

Euskaldunen aztarnak Madrilen (III)

Arte kulturalen Euskal Herriko semeek Madril aldean izan zuten eragina argi dago emanak ditudan adierazpenetan, ilustrazio garaira arte organulariak beren ospea izan bazuten ere, geroago musikagile orotarikoak agertuko zaizkigu. Baina bada bestelakorik ere.

"Azkoitiko zalduntxoak" (Caballeritos de Azcoitia) hain mesprezuki asmatutako izen-koek gure herria ekarri zituzten abantailak, gaur egun, inork ez ditu zalantzan jartzen. Zalduntxoaren gurasoen ordea, Real Compañía Guipuzcoana de Caracas-en sortzailek ziren, Sevilla-ren monopolioa nolabait autsi eta Ameriketarako merkataritza berritza ekarri zutenek, gero Filipinas aldera ere zabaltzeko. Horregatik, ekonomia arazoetan "Azkoitiko zalduntxoak" aurretik bizkirtu ziren euskaldunak, hortarako lehenagotik ere Consulado de Bilbao zelako erakunde hurratik ere esperimentuak zituztenek. Baina, Madrilera kokatzen bagara, hamazortzigarren menderako han agertuko zaigu Joan Goiene txen nafarra, erregeriaren tesoroer izana XVIII. mende horren lehen partean. Ekonomi arazoetarako ahalmenak handiak omen zituen, baina horien batean arduratu zuen kultur ekintzekin ere, bereziki zenbait arteusau industriaz.

Joan Goiene txen arizkundarra izan zen Madril-eko probintzian Nuevo Baztán deritzan hiriarren sortzaile, eta han bertan sortu zuen Espainiako vidrio industrian bere erakunde osoz ezagutu zuten lehen lantegi handia. Hala ere, atzeritarrek sortu zituzten konpetentziagatik ezina izan zuen ekonomiaz behar bezala aurrera ateratzeko, naiz eta kalitatez jenero ona lortu. Lantegi hartako bai, Ventura Sit izen-ideituraduna, katalan jatorrikoa bera, hain ospetsua izatera helduko zen La Granja de San Ildefonso-ren sortzaile izan zen 1728. urtean.

Bestalde, eta garai hartarako, Joan Goiene txen ohartua zen ideien zabalkunderako zer garrantzitsua zen kazetaritza (periodismoa)

eta orduan ekonomia abletik larri zebilen **Gazeta** erosi zuen eta jabetzeaz hain entzutesua bihurtuko zen **Gaceta de Madrid** sortu zuen.

Baina, garai berean ahaztu ezinezkoa zaigu beste nafar ekonomilari bat ere, Jeronimo Uztartiz. Horien berriak naro eskaini zitzi-gun Julio Caro Barojak **La hora de Navarra del XVIII** (1969) deritzan liburuan.

Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País zeritzan erakundearen eragina ordea, guziok dakigu zein handia izan zen, Euskal Herriaren ez ezik Espainia guziz ere; Erakunde hori ereduatuz harturik sortu bai ziren Real Sociedad Económica zirelaokok, Horien eragileteriko bat izan zen G.M. de Jovellanos, Madrileko Euskal Etxea bera kokatzen den kale izena bere ohoretan emana dena.

Historiaren ure horretan euskalduntxo beti izan behar dugu gogoan "Azkoitiko zalduntxoak" sortu zuten Real Seminario de Vergara, Euskal Herriaren eta euskaldungandik gori mailako irakaskintza inoiz sortu den kultur eta zientziako mugimendurik interesgarriena. Esan bezala, bere eraginez sortu ziren Sociedades Económicas zirelako haiek, geroago etorriko ziren Escuela de Ingenieros dirrelaokoen guraso zirenak.

Jovellanos aipatzean ezin gindezke ahaztu asturiar honek XVIII. mendearren bukaeretan Euskal Herria egin zituen bisitak, bere **Diario** delakoa hain ongi adieraziz. Gainera, Bergarako Mintegiaz idazten duclairik, euskaldunon kirolak, jaiak eta amore ona ere goraputzen ditu. Bestalde, Eibarako armagintzaren berri eman zuen eta hori ere gogoan-garria zaigu. Gure historiagile askok ez bai dakite hortaz ezer, **Euskal Herriko Atlas**a lekuko. Baina, gure armaginak, eta armak aipatzean sukzo arma eskuz erabiltzariak adiztera eman nahi ditut, Simancasen gordetzen diren agiriak erakusten dituzte, XV. mendearren azkenalditik egiten dira Deburruaren

behe partean, eta ez XVIII.etik, askok uste bezala. Aspaldi, Gregorio Mujika zenak argi utzi zuen hori, bai Eibarri eskaini zion monografiaren eta baita ere **Euskalherriaren alde** zeritzan aldizkarioko zenbait lanetan. Bilbon teknikeri buruz eratu zen **III Semana de Antropología Vasca** (1973), bi liburutan jasoa, argi utzi gueluokoen geuden, baina ez itxura denez. Orainago, adiskide Ramiro Larrañagak publikatua du **Sintesis Histórica de la Armería Vasca** (1981), gauza horiek zehatz-mehatz jasoz.

Baina aintzinarok armagintza haren berriak eta lanen teknika jasotzeko Madrid bera ezta leku txarra, material asko hor aurkitzen denez. XVI. mendeko Sevilla eta Madril aldean ibili zen Legizamón arkabuzgina, garai berean Aiala eta Agirre (bigarren hau Toledo-n kokatua) ezpataginak. Baina, ezagunagoak zaizkigu, erregerean aginduenak, XVIII. mendearren lehen partetik armagintza aritu ziren Ezkibel arkabuz eta eskopetagina eta ondorean agertu ziren Doiztua, D'Encarroz (Ezenarroz), Zelaieta eta beste, Zuloagarrak arte. Eta horien lanen teknika halokak ezagutzeko Madrileko museoetara jo beharra dugu.

Juan SAN MARTIN

Entre los vascos de la Ilustración, en lo que se refiere a los aspectos económicos, los del Consulado de Bilbao y los de la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas (que luego harían extensible a Filipinas), precedieron a los "caballeritos". Pero, sobre todo, establecido en Madrid, destacó el navarro, hijo de Arizcun, Juan de Goyeneche, que fue tesoroero de la reina en la primera mitad del siglo XVII. El fundó el poblado Nuevo Baztán, y en el mismo estableció la primera fábrica de España con organización completa de taller para producir vidriería. Que por una serie de dificultades que surgieron, en competencia con los vidrios del extranjero, esta fábrica no pudo prosperar a

pesar de la excelente calidad de sus productos. Sin embargo, un operario de aquella fábrica, Ventura Sit, de origen catalán, fue quien en 1728, la vidriería de La Granja de San Ildefonso.

*Juan de Goyeneche consideró el prestigio como medio difusor muy importante y utilizó en la **Gaceta** para convertir en permanente **Gaceta de Madrid**.*

*Pero, en la misma época, no hay que olvidar al economista navarro Jerónimo de Uztartiz, por Julio Caro Baroja en su obra **La hora de Navarra del XVIII** (Pamplona, 1969).*

*Las Reales Sociedades Económicas fueron como reflejo de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Jovellanos uno de los impulsores y sobre el tema de datos de interés en sus diarios, así como la armería de la cuenca baja del Duero, por Jovellanos (y me refiero a armas portátiles) se remontan a finales del siglo XVIII, concretamente por los pedidos de armas para la toma de Granada. Desde entonces, en un asunto bien documentado en los archivos de guerra que hoy se hallan depositados en Salamanca y que Gregorio Mujika trata en su amplia, se aportaron nuevos datos en el **Semana de Antropología Vasca** (1973).*

*El momento ha completado. Ramiro Larrañaga con la gran obra **Sintesis Histórica de la Armería Vasca** (1981).*

Pero para seguir a los viejos maestros, es necesario recurrir a los manuales, principalmente los de Madrid, donde se conservan muestras del siglo XVI en adelante, para apreciar la evolución de las distintas armas. Legizamón fue uno de los primeros maestros, establecido en Sevilla y Madrid. Los poderes trabajaron Ayala y Aguirre (segundo en Toledo), y desde el siglo XVIII destacaron como armeros del rey Carlos Doiztua, D'Encarroz (Ezenarroz), Zelaieta y Zuloaga.

Literaturaz

Herri baten kulturak' edozein bizidun izakirik bezala' ba, ditu bere sortzaie, bere jaiotza, bere desarrolloa... eta huntara ere bere adinaren maioriasuna. Eta nola gizonek' nahi eta ez' kosmoan agertzen diren grmza gutziak' bethi beren baitiako izariak juddatzen bait dute, halatan ere' Protágorasek erran zuen bezala, kulturaren ere' "gizona gauza guztien izaria da" (pánton khremátion métron anthrópon) izaiten direnena direnez (tón mèn ontón hós ésti) eta "izaiten ez direnena" ez direnez" (tón de ouk ontón hós uk éstin), gizonek kulturaren biiziaren izaria izan behar dute. Eta kulturaren desarrolloa' kosmoan dagoen bertzeko gauza gutziak bezala elkharrekin erkatzen, konparatzen ditugu. Halatan ere' gizon batek bere haurzarzaren egiten dituen gauzak, on ala tzar izan ditzake, bainan ezin judda ditzazkegu gizon ber hunket bere maiorzarzaren egin dituen kritérianaz, ez eta vice versa ere.

Halakotz Frankaldeko Literatur Historian gaur agertzen diren tendentziak' bethi pensatu behar dugu, nola tendentzia hauek' Literatur hunen maiorzarzaren agertzen diren aspektua diren. Tendentzia berri hauek ba dute beren aurrean' menderik askotan eragartzu, trabailatu den literatur histori luze bat. Literatur historiak, hantaz gainera bethi herri gutziarik literaturaren kulturek sorharazituzten poiméren arauera pliztzen dira, eta herri bakoitzak bere kulturegilek ditu, bertzeko herrietan sortzen direnei buruz ez berdink direnak. Hortakotz ere' baldin eta Frankaldeko Literatur Historian epokha berrietan, literatur salimbankiak sortzen ba dira, nehoiz ere ahanzia behar ez genuke, nola gutzat literatur buffoinak haizik ez diren irazleak' bethi Frankaldean guttiarik hamar urheetan eskolan sakonki Frantziarren literatur historia itxudiatu dute, eta nola persona haiuen izkribuak irakurten dituen publikoa ere' bertzeko hamar urheetan eskolan egon zen, literatura itxudiatzeaz. Halakotz bien artean bethi nolabaiteko kultur komunikazioa izan liteken, eta beraz, phiztaraz ditzaketzen. Halakotz' herri baten literatur Historian sortzen diren tendentzia irrazionalak ere' beren publikoa-

gan nolabaiteko kultur resonantziak eduk ditzazkete bertze herriengan ezin eduk ditezkan. Hunelako modernismo bat, Frankalden sortua' gaztelaraz irazten ari den gaztelar irazle batek' espanharaz erabili nahi ba deza, kultur ékha antirrhoipoi bat sorharaz dezaten-tza, bethi analogiaz aldatu behar du metaphoraren bidez' efektu berdina edukitzekotz. Beraz, frankarazko literatur Historian sortzen den tendentzia berria nolabait assimilatatu, ta gaztelararen literatur Historianen bilhakatzebideari akkomodatu behar derauko. Hunelako transposizioa egin ez ba deza, orduan bere mimetzea' ez litzazke pithéko baten ekhinta hazten. Dudarik gabe hunelako influentziak literatur Histori osoan ikhas ditirógu, eta haren bidez literatur aberatsagoek' kultur hartzaileak emaltzen dituzkete.

Orain dakigun bezala, gizon guztien baitan bethi kultur referentzien eratean da bere burfuitzaren barnean, berez herentzia genetikoa bezala bere khromosómetan ondoretu diuenaz' geroz kultur herentzia genetikoa bilbatzen denean, eta kulturduetan geroz bethi kultur hizkuntzen bidez hirurgarren tipoko hariak berriro bilbatzen dira. Hunelako kultur-ehulearen ekhinta' kulubatu herri gutziaren eskolaren eta Unibersitatearen bidez ikaslel emaitzen zaie. Huntara zenbait urdiren buruan' persona batbederak bere neokortexean ba daduka bilbatuzki kultur-referentzien sistema bat, eta huntara ere, geroz irazle batek -kultur referentzien sistema berdina ikasi duelaokotz- bere lanetan erabiltzen dituen kultur-buffoinadak ere' referentzien sistema hortan poitak nahi lukéan ékha phiztarazten duke. Nola Europako herri kulturek -beren ethorik garaiokz gainera- geroz askotan beren adar-bidez desberdinak desarrolatu bati dituzte, halatan' literatura baten sortzen diren literatur-modak berriak bethi' nolabaiteko transposizioez aldatu behar dira, hizkuntza originalek eduk ditzazketen ondorioak ere'phiztaraz ditzaten. Hortakotz ere gaztelarazko irazle batek' frantsek literaturatik modak, gaztelararen kultur hitoaren bidera adoxtuko ditu. Bertzenaz, pai-

laso bat haizik ez bait litzazke. Baitan hunelako kultur buffoinadak' euskaraz bezala orain-arte egiatzko kultur-referentzien sistema eratu ez dituen hizkuntza batetan' kultur buffoineriak baino itzarago dira, zeren-eta soilik genos-ittontzeoren pailasoen posse stupoak haizik ez bait dira. Hizkuntza bakoitzak' bere desarrollo bidea eta stathmoak ditu. Eta literatur kirko batetan kable dantzarria izan baino lehen, hizkuntza gutziak beren hizkerak (hizkuntzaokozko nivelak) eta styloak eratu behar dituzte. Eta hizkera hauek eta stylo hauek ez dira nehoiz ere hizkuntza gutziatzen equivalentik, aitzitik, graikararen stylo basikoez harantz bethi gure kultur-kykloko hizkuntzek beren berheitazuan eratu dituzte. Hunelako kultur basien kretzapenaren epokhak bethi joaiten ohi dira elkharrikulturik hizkuntza guztien "Urrheko aroez", zeren orduan herri baten kultur basia ta referentzien sistema eratezen bait da. Geroagozko epokhetan soilik agertzen ohi dira epigonokak, eta hauietan ez dira ahanizatzen gizon genialak sortzen. Beraz' euskaraz ere' jakin behar genuke' zein epokhetan gauden, eta noiz eta nola kanpoko salimbankieriak immetzen ditugula' soilik gutarean kultur-pailasok ditugun. Hizkuntza bat' philologikoki formatu behar den epokhan' tendentzia anarkhikoez eta libertarioez ethortea' hizkuntza baten erahiltza delakotz.

Federiko KRUTWIG SAGREDO

Quando un autor de lengua francesa hace ciertos juegos malabáricos en su lengua materna, nunca deberíamos olvidar, que así procede después de unos diez años de estudio de literatura y cultura de su lengua nacional, de suerte que sus actitudes de salimbánqui tienen, para todo francés, que al igual que el ha estudiado uno diez años de lengua y literatura francesa toda una resonancia cultural, que pueden hacer que su actitud aparentemente grotesca para quien no tiene ese fondo cultural, sea en cambio para quien lo posee, tan sólo un símbolo que evoque toda una amplia resonancia rica en contenido cultural. Es evidente que un autor de lengua castellana, si quiere imitar

al salimbánqui literario francés - como lo es tanto en realidad - tendrá que ser correspondientes resonancias en su idioma, so pena de quedarse convertido en objeto de la literatura. Pero el conbeto que está pasando entre nosotros, en que tenemos payasos y bufones literarios, no tener la literatura vasca toda, es un error cultural que posee la lengua vasca, y lo grave, al no poseer la mayor parte de los autores vascos esa cultura literaria, es que nosotros poseen los literatos y toda parte del diamante culto de lengua francesa. Los modernismos resultan ser algo peor que los literarios ya que son tan sólo un juego de simiescos de personas que deberíamos llamar como correspondientes al género. Cada cultura, cada literatura tiene su propio, y así hay una época en que ser los hombres creadores, y también, donde esa red de referencias culturales, que hacen la riqueza espiritual, se agota. Luego otros podrán efectuar el ciclo completo. Esa época creadora suele estar acompañada a los llamados siglos de oro de las literaturas, y tan sólo en épocas que se dan, alguna vez, un genio que produce algo tras un siglo de oro ya pasado. La parte de los epígonos literarios que se parafrasea la base cultural de los creadores. Pero parafrasear es hacer algo que no hay más que copiar, es hacer copia de imbecil, cuando además se hace con res' suelen ser gente de educación mediocre, sino casi siempre de cultura mediocre, quienes así manejan la pluma como si estuvieran empleando hierros de construcción. Ya los griegos sabían que un genio produce doce trabajos (dihloi) de Homero, y otros tantos de praxeis y parerga... y otra cosa es que el mismo se pone a imitarlos. Por eso el poeta cervés de las bufonadas de los modernismos preteriores literarios, de salimbánqui, cultura, y en cambio son tan geniales los de auténtica creación, que el pueblo vasco uno auténtica edad de oro literaria, que por suerte también existe.